

ARANTZAZU POLITA

Doinua: "Triste bizi naiz eta"

1

Herri politik asko
munduan badira,
politienaren bila
ez joan urrutira.
Begi-bihotz zabalik
zatoz Arratira,
hau ikusita gero
ezetz erretira.

2

Erreka, zelai, mendi
danetik daukazu,
harritzen zareana
azkena zara zu.
Ene adiskidea,
kasu egidazu:
Ez joan ikusi barik
gure Arantzazu.

3

Paraisua dirudi
bai zoragarria!
zeru txiki dirudi
goitik ekarria.
Parrokian San Pedro
giltzari jarria,
zeru honen ondoren
han zeru barria.

4

Arantzazu maitea,
horra zenbat lora!
Guzurrak ez dira ta
hartuizuz gustora.
Arantzazura dator
gaur Bizian Gora,
zeuri lagundu nahirik
jatortzu ondora.

5

Bizian Goran gabiltz
pozik Arantzazun,
jubilatuok, a zer
suertea daukagun.
Jesus deika daukagu
badan nok erantzun,
ondo merezi dau ta
egin danok lagun.

6

Amaitzen bajoaku
bizitzako txanda,
hau Jesusen deia da
ez da propaganda.
Gaur arteko apurra
hain ona izan da,
aurrera noa baietz
Jesusi esanda.

A. Martzel